

Sagardotegi ugaritan dastatu ahal izango da Alkorta enpresak ekoizten duen bakailaoa. JON URBE / ARGAZKI PRESS

# BAKAILAO HOBERENA

*Sagardotegietako jaki ederrak dira bakailao tortilla eta bakailaoa piperrekin egina. Alkorta Bakailaoak enpresak oso preziatua den bakailaoa banatzen du, kalitate handikoa, eta sagardotegi askotan dastatu ahal izango da.*

Alkorta Bakailaoak enpresak ekoizten duen bakailaoa munduko kala hoberenetariko batean lortzen dute: Faroe uharteetan. Bakailaoari kalitate kontrol zorrotzak egiten dizkiote, eta ondorioz oso preziatua eta estimatua den produktu bat ekoizten dute.

Kalitate handiko bakailaoa da: gazia, gezatua eta gezatu izoztua. Arduradunen hitzetan, produktu nagusia bakailao gezatua da. Bakailaoa gatzgabetze prozesu zorrotz batetik pasatzen da; ondoren kalitate kontrola egiten da, eta, azkenik, ontziratzea, biltegiratzea






eta banaketa egiten dute. «Modu horretan, gure bakailaoa bezeroengana gatz puntu egokiarekin iristen da eta sukaldean prestatzeko moduan egoten da». Bakailao gezatua hainbat modutan ekoizten du: goi sukaldaritzako solomoa, *Gran Gourmet* solomoa, bakailao solomoa, pil-pil berezia, kokotxak, menu berezia, menua, papurtua, muturrak, xerrak, ajoarrieroa eta solomoa txingarretan.

## IBILBIDE LUZEA

1976. urtean Alkorta anaiak elikadura alorrean lanean hasi ziren, eta, hainbat produktu lantzen aritu ondoren, 1993an bakailaoa ekoiztea erabaki zuten. 1997. urtean Comercial Alkorta Anaiak sortu zuten elkarte mugatu gisa.

1998. urtean, enpresa zabaldu, eta tresna modernoak eta instalazio berri eta zabalak lortzeko inbertsioak egin zituzten. Inbertsio horiek gehienbat bakailao gezatua ekoizteko bideratu ziren, eta hori bihurtu zen enpresako produktu nagusia.

2009. urteko urtarriletik aurrera, Alkorta Bakailaoak enpresaren egoitza Elgoibarko Albitxuri industrialdean dago. 3.700 metro koadro baino gehiagoko instalazioak dira, eta enpresak ekoizten dituen produktuen zainketa, kontserbazioa eta lanketa egiteko azken teknologiez hornituak daude, «garbitasun eta kalitatearen berme handienekin», hain estimatua den bakailaoa ekoizten jarraitzeko.

Informazio gehiago: *www.bacalaosalkorta.com* helbidean.



**Oso estimatua da Alkorta enpresak banatzen duen bakailaoa.** ALKORTA BAKAILAOAK



ALKORTA BAKAILUAK

BAKAILAO GEZATU, GAZI ETA KONJELATUAREN ELABORAZIO ETA BANAKETA

Albitxuri Poligonoa 1A-1I Nabeak - 20870 Elgoibar - Gipuzkoa
Tel. 943 744 581 - 943 744 501 · Fax 943 740 962
www.bacalaosalkorta.com · e-mail: bacalaosalkorta@bacalaosalkorta.com